




OSASUNAPP



BALIO PROPOSAMENA

Guk Ta kitto! taldeak, sortu dugun ideia osasunarekin erlazionatutako APP bat da, "OsasunApp". Honek osasun arloko hainbat adar abarkatzea dugu helburu. Bertan historial klinikoa (datu pertinenteak soilik), odol emaeleentzako informazioa (egutegia, zure jarraipena...), medikuarengana joateko txanda eskaera eta informazio orokorra eskuragarri jarriko genuen.

Honekin osasunaren inguruan dauden zenbait gabezia konpontzea edo hobetzea lortu nahi dugu. Gabezia horien artean historial klinikoaren eskuragarritasuna izatea, informazioa errazago lortzea, erosotasuna etab.

APP hau aurrera atera dadin, gobernuari eskaera egingo genioke finantza gaitzan eta beste hainbat elkarteren laguntza bilatuko genuke, adibidez Osakidetza informazioa lortzeko.

Aplikazio hau doakoa izango da gizarte guztiaren eskura izateko.

Diseinuaz hitz egiterakoan, argia eta erabilera errazekoa izatea nahi dugu. Gaika ondo sailkatua, gauzak erraz aurkitu ahal izateko, eta itxura serio eta garbi batekin. Baita ere irudiz ornitua pertsona edadetuen erraztasunerako.

Segurtasun handikoa izango da eta hau erabiltzeko erregistratu beharko da, izan ere datu pertsonalak biltzen ditu eta honen pribatutasuna gorde nahi da.

Etorkizunean, aplikazioaren erabilera ordenagailuan ahalbidetzea eta honekin batera, aplikazioa bera handitu eta eskaintza zabalago bat izatea.